BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

3217

EBAZPENA, 2013ko ekainaren 17koa, Hizkuntza Politikarako sailburuordearena, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietan euskara sustatu, garatu edota normalizatzeko diru-laguntzen balorazio-batzordea osatzen duena.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuak, 2013ko maiatzaren 2an, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietan euskara sustatu, garatu edota normalizatzeko diru-laguntzak emateko modua arautu zuen agindu baten bidez (IKT deialdia). Agindu hau, 2013ko maiatzaren 6an argitaratu zen EHAAn.

Aurkeztutako eskabideak aztertzeko eta ebaluatzeko osatuko den balorazio-batzordearen osaera era honetan arautzen du aipatu aginduaren 17 artikuluak:

17. artikulua.– Balorazio-batzordea.

1.– Aurkeztutako eskabideak aztertzeko eta ebaluatzeko, berariazko Balorazio-batzorde bat osatuko da.

2.– Balorazio-batzordea honako kide hauek osatuko dute:

a) Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako zuzendaria edo bere ordezkoa, batzordearen buru izango dena.

b) Foru administrazioetako hizkuntza politikaren ardura duten sailetako teknikari bat, gutxieneko maila zerbitzu buruarena delarik, edo bere ordezkoa.

c) Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzako EBPNren jarraipenerako arduraduna, edo bere ordezkoa.

d) Euskara Sustatzeko Zuzendaritzako Estandarizazio Zerbitzuko arduraduna edo bere ordezkoa.

e) Euskararen Aholku Batzordeko kide bat.

f) IKT alorreko aditu bat.

g) Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzako teknikari bat edo bere ordezkoa. Horrek idazkari-lanak egingo ditu eta hitza izango du, baina ez botorik.

Ondorioz, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietan euskara sustatu, garatu edota normalizatzeko diru-laguntza deialdiaren balorazio-batzordeko kideen izendapena egitea.

Bigarrena.– Honako hauek dira 2013ko maiatzaren 2ko Aginduaren 17.2 xedapenaren arabera izendatutako balorazio-batzordeko kideak:

a) Jorge Giménez Bech jauna, Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako zuzendaria, batzordearen buru izango dena. Ordezkoa, Jokin Azkue Arrastoa jauna, Euskara Sustatzeko zuzendaria.

b) Gotzon Egia Goienetxea jauna, Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara Zuzendaritza Nagusiaren zerbitzuburua. Ordezkoa, Joxean Amundarain Iturrioz jauna, Euskararen Normalkuntza Ataleko burua.

c) Ane Crespo Calvo andrea, hizkuntza plangintzaren arduraduna. Ordezkoa, Edurne Basoa González andrea, Euskara Sustatzeko Zuzendaritzako Dokumentazio eta Informazio Zerbitzuaren arduraduna.

d) Araceli Díaz de Lezana Fernández de Gamarra andrea, Euskara Sustatzeko Zuzendaritzako Estandarizazio Zerbitzuko arduraduna. Ordezkoa, Igor Goirizelaia Ziardegi jauna, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Informatika Zerbitzuko koordinatzailea.

e) Jokin Gorozika Bidaurratzaga jauna, Euskararen Aholku Batzordeko kidea.

f) Iratxe Esnaola Arribillaga andrea, IKT alorreko aditua.

g) Elene Etxezarreta Etxeberria, hizkuntza plangintzako teknikaria, eta Batzorde honen idazkaria. Ordezkoa, Jone Aboitiz Legarra andrea, hizkuntza plangintzako teknikaria.

Hirugarrena.– Zerbitzuen ondoriozko ordainketak.

Administraziotik kanpoko balorazio batzordeko kideek dietak edota konpentsazioak jasotzeko eskubidea izango dute organo horretan parte hartzeagatik izandako gastuengatik, indarrean dagoen araudiaren arabera. Ordaindu behar diren kopuruak kalkulatzeko oinarri gisa hartuko dira kalte-ordainei buruzko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan ezarritako kopuruak.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Administrazio-bidea amaitzen duen ebazpen honen aurka, interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita. Bestela, zuzen-zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazio Auzietarako Salan bi hilabeteko epean, honako Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean izango du eragina.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko ekainaren 17a.

Hizkuntza Politikarako sailburuordea,
PATXI XABIER BAZTARRICA GALPARSORO.